

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

12356 5/2020 Legea, urriaren 15ekoa, Transakzio finantzarioen gaineko zergarena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

2013az geroztik, transakzio finantzarioen gaineko zerga bat modu harmonizatuan ezartzeari buruzko zuzentarau bat onartzeko lankidetza indartuko prozedurari dagokionez, Espainia Europar Batasuneko herrialdeen taldeko kide da, Alemaniarekin, Frantziarekin, Austriarekin, Belgikarekin, Eslovakiarekin, Esloveniarekin, Greziarekin, Italiarekin eta Portugalekin batera.

Urte hauetan, zergaren konfigurazioan aurrerapenak egin diren arren, ezin izan da lortu zuzentzaraua onartzeko akordioarik. Harrezkero igarotako denbora kontuan hartuta, eta zerga harmonizatu bat ezartzeko lankidetza indartuko prozedura alde batera utzi gabe, egokitzat jotzen da transakzio finantzarioen gaineko zerga maila nazionalean ezartzea, finantza publikoak kontsolidatzeko helburuari laguntzeko eta zerga-sistemaren ekitate-printzipioa indartzeko, kontuan hartuta orain oro har zergapetzen diren eragiketak ez daudela benetan ezein zergaren pean zeharkako zergapetzearen esparruan.

Gure inguruko herrialdeek (Frantzia eta Italia, besteak beste) hartutako ildoari jarraitzen dio zergaren konfigurazioak, eta horrek laguntzen du Europan karga horiek gehiago koordinatzen.

Hala, Espainiako sozietateen akzioak kostu bidez eskuratzek osatzen du zergaren zerga-egitatea, eragiketan esku hartzen duten pertsonen edo erakundeen bizilekua edozein izanik ere.

Beraz, jaulkipen-printzipioa ezartzen da zergapetze-printzipiotzat, horrela finantza-bitartekarien deslokalizazio-arriskua minimizatzen baita, bizileku-printzipioarekin alderatuta, kontuan hartuta Espainiako sozietateen akzioak zergapetzen direla, finantza-bitartekariaren bizilekua edo establezimendua edo negoziatzen diren tokia edozein izanik ere.

Era berean, zergapetu egiten dira arestian aipatutako akzioak ordezkatzeko dituzten gordailu-ziurtagiriak.

Dena den, zerga ez da aplikatzen Espainiako sozietateen akzioen eskurapen guztietan; aitzitik, merkatu arautuan negoziatzeko onartutako akzioak dituzten sozietateen akzioetara mugatzen da, transakzioa negoziazio-zentro batean exekutatu edo ez, eta, gainera, 1.000 milioi eurotik gorako burtsako kapitalizazio-balioa duten sozietateetara. Atalase horrekin lortu nahi da zergak ahalik eta eragin txikiena izatea merkatuaren likidezian, eta, aldi berean, zergaren bilketa potentzialaren ehuneko oso handia bermatzea.

Salbuetsita geratzen dira lehen mailako merkatuko eragiketa jakin batzuk, merkatuek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak direnak, enpresak berregituratzeko eragiketetatik edo suntsiarazteko neurrietatik datozenak, talde bereko sozietateen artean egiten direnak eta aldi baterako lagapenak.

Zergaren sortzapena ezartzen da zerga-egitatea osatzen duten eta kostu bidez eskuratzeko diren baloreen idatzoharra egiten denean zergadunaren alde, ohar hori balore-kontu batean edo gordailu- edo zaintza-zerbitzua ematen duen finantza-erakunde baten liburuetan egiten denean, edo baloreen gordailuzain zentral baten erregistroetan edo erakunde parte-hartzaileek daramatzaten erregistroetan egiten denean.

Zerga-oinarria kontraprestazioaren zenbatekoa da, transakzioari lotutako gastuak sartu gabe. Hala ere, arau berezi batzuk ezartzen dira baloreen eskurapena obligazio edo bonu bihurtzeko edo trukagarri, finantza-tresna eratorrien edo edozein tresna edo kontratu finantzarioen exekuzio edo likidaziotik eratorzen den kasuetan, bai eta egun berean egindako eskurapenen eta eskualdatzeen kasuan ere.

Baloreak eskuratzen dituen da zergaren zergaduna. Oro har, eskuratze-agindua transmititzen edo exekutatzen duen finantza-bitartekaria da subjektu pasiboa, dela bere kontura jarduten duena –kasu horretan, subjektu pasiboa izango da zergadun gisa–, dela hirugarrenen kontura –kasu horretan, zergadunaren ordezkoren izaera izango du–.

Azkenik, zergaren aitopena eta sarrerari dagokienez, legeak kasu hauen eta prozeduraren erregelamendu bidezko garapena aurreikusten du: Espainiako lurraldean kokatutako balore-gordailuzain zentrala izatea, subjektu pasiboaren izenean eta haren kontura, zerga-zorren aitopena eta sarrera egingo dituen. Horrela, kudeaketaren automatizazio-maila handia lortzen da.

Aurreko prozedura aplikagarria ez den kasuetarako, oro har, subjektu pasiboaren autolikidazio-sistema ezartzen da.

Horretarako, eta zergapetutako eragiketarako egiten diren lekua edozein dela ere zergaren efektibitatea bermatzeko, Espainiako Zerga Administrazioak araudian informazioa lortzeko aurreikusita dauden legezko tresna guztiak erabiliko ditu. Bereziki, nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan aurreikusitakoak, bai eta Europar Batasunaren altxorren aurreikusitakoak ere, hala nola Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauan araututakoak –fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaru indargabetzen duena–.

Azkenik, nabarmendu behar da, orain arte azaldutakoaren arabera, testu arauemaile hau printzipio hauetara egokitzen dela: premiaren, efikaziaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 129. artikuluan jasotzen duen bezala.

1. artikulua. *Izaera eta aplikazio-eremua.*

1. Transakzio finantzarioen gaineko zerga zeharkako zerga bat da, eta akzioen eskurapenak zergapetzen ditu, lege honen 2. artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Zerga aplikatuko da eskurapena egiten den lekua edozein dela ere eta eragiketan parte hartzen duten pertsonen edo entitateen bizilekua edo kokalekua edozein dela ere, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dauden itun eta hitzarmen ekonomikoko zergen foru-araubideak, hurrenez hurren.

2. artikulua. *Zerga-egitatea.*

1. Zergapetuta egongo dira Espainiako nazionalitatea duten sozietateen kapital soziala ordezkatzeko akzioen kostu bidezko eskurapenak –uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera–, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Sozietateak bere akzioak negoziatzeko onartuta izatea Espainiako merkatu batean edo Europar Batasuneko beste estatu bateko merkatu batean, eta merkatu hori araututa egotea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan –finantza-tresnen merkatuei buruzkoa– aurreikusitakoaren arabera, edo hirugarren herrialde bateko merkatu baliokide batean, zuzentaru horren 25.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Sozietatearen burtsako kapitalizazio-balioa, eskuratu aurreko urteko abenduaren 1ean, 1.000 milioi eurotik gorakoa izatea.

Apartatu honetan aipatzen diren eskurapenak zergapetuta egongo dira, alde batera utzita nola exekutatzen diren: negozio-zentro batean, aipatutako zuzentaruaren 4.

artikuluaren 1. apartatuaren 24. zenbakian definitzen den bezala; beste edozein merkatu edo kontratazio-sisteman; barneratzaile sistematiko baten bidez, Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 331. artikuluan definitzen den bezala –urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategin hori–; edo kontratugileen arteko zuzeneko akordioen bidez.

2. Era berean, zergapetuta egongo dira:

a) Artikulu honen 1. apartatuan aipatutako akzioak ordezkatzeko dituzten gordailu-ziurtagiriak eraturako balore negoziagarrien kostu bidezko eskurapenak, balore horien erakunde jaulkitzailearen kokalekua edozein izanda ere.

Hala ere, ez dira zergapetuta egongo aurreko paragrafoan aipatzen diren baloreak jaulkitzeko helburu bakarrarekin egindako akzio-eskurapenak. Era berean, honako hauek ez dira zergapetuta egongo: a) letran aipatzen diren gordailu-ziurtagiriak eskuratzea, baldin eta, trukean, horiek ordezkatzeko dituzten akzioak entregatzen baditu eskuratzailerak; edota gordailu-ziurtagiri horiek ezerezteko egiten diren eragiketak, ordezkatzeko dituzten akzioak emanez titularrei.

b) Artikulu honen 1. apartatuan eta apartatu honen a) letran aipatzen diren baloreen eskurapenak, baldin eta honako hauen exekuziotik edo likidaziotik eratorritakoak: obligazio edo bonu bihurtutako edo trukagarriak; finantza-tresna eratorritakoak; edozein finantza-tresna, edo azaroaren 10eko EHA/3537/2005 Aginduaren 2. artikuluan 1. apartatuaren laugarren paragrafoan definitutako finantza-kontratuak –agindu horren bidez garatzen da Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 27.4 artikulua–.

3. Abenduaren 1ean 1.000 milioi eurotik gorako burtsako kapitalizazio-balioa duten Espainiako sozietateen zerrenda urte bereko abenduaren 31 baino lehen argitaratuko da Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan.

3. artikulua. *Salbuespenak.*

1. Honako akzio-eskurapen hauek zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

a) Akzioak jaulkitzetik eratorritako eskurapenak.

Halaber, salbuetsita egongo dira lege honen 2. artikuluan 2. apartatuaren a) letrak aipatzen dituen gordailu-ziurtagiriak –balore horiek sortzeko bakarrik jaulkitako akzioak ordezkatzeko dituztenak– jaulkitzetik eratorritako eskurapenak.

b) Akzioak saltzeko eskaintza publiko batetik eratorritako eskurapenak, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 35.1 artikuluan definitutakoaren arabera, inbertitzaileen artean hasieran kokatzean.

c) Aurreko a) eta b) letratan aipatutakoen aurretik egindako eskurapenak, azken inbertitzaileen artean akzio horien azken banaketa egiteko jaulkitzaileek edo eskaintzaileek kontratatu dituzten kokatzaile eta aseguratzaileek izaera instrumentalarekin egindakoak, bai eta eragiketa horien kokatzaile gisa eta, bereziki, aseguratzaile gisa, hala badagokio, dituzten betebeharrak betez egindako eskurapenak ere.

d) Burtsan akzioak onartzeko testuinguruan, prezioak egonkortzeko ardura duten finantza-bitartekariak egindako eskurapenak, egonkortze-enkargu baten esparruan, hemen jasotako aurreikuspenen arabera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamendua, merkatu-abusuari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/6/EE Zuzentaraua eta Batzordearen 2003/124/EE, 2003/125/EE eta 2004/72/EE zuzentarauak indargabetzen dituenak.

e) Erosketa- edo mailegu-eragiketetatik eta kontrapartida-erakunde zentral batek edo baloreen gordailuzain zentral batek zerga honek zergapetutako finantza-tresnen gainean egindako gainerako eragiketetatik eratorritako eskurapenak, konpentsazioaren edo baloreen likidazioaren eta erregistroaren esparruan dagozkien egitekoak gauzatzean.

Letra honetan sartzen dira kontrapartida-erakunde zentralaren berezko nobazio-eragiketak, bai eta likidazioaren akats baten ondoriozko berrerosketa-eragiketa baten

esparruan egindako eragiketak ere, erregelamendu honetan jasotakoaren arabera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 909/2014 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunean baloreen likidazioa hobetzeari eta baloreen gordailuzain zentraleri buruzkoa; erregelamendu horren bidez, 98/26/EE eta 2014/65/EB zuzentarauak eta 236/2012 (EB) Erregelamendua aldatu dira.

f) Finantza-bitartekariak likidezia-hornitzaileen eginkizunak betetzean akzioen jaulkitzailearen kontura egindako eskurapenak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren apirilaren 26ko 1/2017 Zirkularrean eskatutako betekizunak betetzen dituen likidezia-kontratu baten indarrez, baldin eta helburu bakarra bada eragiketen likidezia eta akzioen kotizazioaren erregulartasuna bultzatzea, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako merkatu-praktiken esparruan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamenduan –merkatu-abusuari buruzkoa– aurreikusitakoaren arabera.

g) Merkatua sortzeko jardueren esparruan egindako eskurapenak.

Ondorio horietarako, halakotzat hartzen dira inbertsio-zerbitzuetako enpresa baten, kreditu-erakunde baten edo hirugarren herrialde bateko erakunde baliokide baten jarduerak, Europako Batzordeak baliokidetzat jotako esparru juridikoa eta gainbegiratze-esparrua duen hirugarren herrialde bateko negoziazio-zentro edo merkatu bateko kide badira, baldin eta erakunde horietako edozeinek bere konturako bitartekari gisa jarduten badu finantza-tresna bati dagokionez, tresna hori negoziatua izanik negoziazio-zentro baten barruan edo hortik kanpo, modu hauetako edozeinetan:

1.a Aldi berean magnitude konparagarria duten eta lehia-baldintzetan dauden eresketa- eta salmenta-kotizazio irmoak iragarritz, eta, horrela, modu erregularrean eta etengabe likidezia emanez merkatuari.

2.a Ohiko jardueraren esparruan, bezeroek hasitako aginduak exekutatzuz edo bezeroek egindako salerosketa-eskaerei erantzunez.

3.a Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako jarduerak exekutatzearen ondoriozko posizioak estaliz.

Salbuespen hori aplikatuko da, halaber, letra honetan aurreikusitako modu berean, eskurapenen xedea lege honen 2. artikulua 2. apartatuaren a) letraren lehen paragrafoan aipatutako baloreak direnean.

h) Talde bereko erakundeen artean akzioak eskuratzea, Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera.

i) Bat-egiteen, zatiketen, aktibo-ekarpenen, balore-trukeen eta Europako sozietate baten edo Europako sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko kide den estatu batetik beste batera aldatzearen araubide berezia aplikatu dakiekeen eskurapenak. Araubide hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen VII. tituluko VII. kapituluaren dago araututa.

Era berean, inbertsio kolektiboko erakundeen edo inbertsio kolektiboko erakundeen konpartimentu edo azpifuntsen bat-egite edo zatiketa eragiketen ondorioz eginiko eskurapenak, dagokion araudi erregulatzailan aurreikusitakoaren babesean eginak.

j) Baloreak finantzatzeko eragiketak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko azaroaren 25eko (EB) 2015/2365 Erregelamenduaren 3. artikulua 11. apartatua aipatzen direnak (erregelamendu hori baloreen finantzaketarako eta berrerabilerarako eragiketen gardentasunari buruzkoa da, eta 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen du), bai eta titulartasun-aldaketa dakarren finantza-bermeko akordio baten ondoriozko kolateral-eragiketak ere –titulartasun-aldaketarekin–, aipatutako erregelamenduaren 3. artikulua 13. apartatua definitzen den bezala.

k) Suntsiarazpen Batzar Bakarrak edo suntsiarazpen-agintaritza nazional eskudunek hartutako suntsiarazpen-neurriak aplikatzearen ondoriozko eskurapenak, honako hauetan jasotako baldintzetan: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 15eko 806/2014 (EB) Erregelamendua (erregelamendu horren bitartez, arau uniformeak eta prozedura uniformeak ezartzen dira kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresa jakin batzuk suntsiarazteko, betiere Suntsiarazpen Mekanismo Bakarraren eta

Suntsiarazpen Funts Bakarraren esparruan, eta 1093/2010 (EB) Erregelamendua aldatzen da) eta 11/2015 Legea, ekainaren 18koa, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearena.

l) Akzio propioen edo sozietate nagusiaren akzioen eskurapenak, bere taldeko kide den beste edozein erakundek egindakoak Merkataritza Kodearen 42. artikulua araberak, baldin eta berrerosteta-programa baten esparruan egindakoak badira eta helburu bakartzat honako hauekoren bat badute:

- 1.a Jaulkitzailearen kapitala murriztea.
- 2.a Akzio bihur daitezkeen zor-tresna finantzarioei datzekien betebeharrak betetzea.
- 3.a Jaulkitzailearen edo taldeko erakunde baten administrazio- edo gainbegiratze-organoetako kideentzako edo enplegatuentzako akzio-aukeren edo beste akzio-esleipen batzuen programatik eratorritako betebeharrak betetzea.

2. Hirugarrenen kontura jarduten duen subjektu pasiboak artikulua honen 1. apartatuan ezarritako salbuespenak aplikatu dituzten, eskuratzailerak jakinarazi beharko dituzten salbuespenak aplikatzeko egitatezko kasuak gertatzen direla, eta informazio hau eman beharko dio:

a) 1. apartatuaren a), b) eta c) letretan jasotako salbuespenei dagokionez, dagokion jaulkiperak edo akzioak saltzeko eskaintza publikoa identifikatu beharko ditu.

b) 1. apartatuaren e) letran jasotako salbuespenari dagokionez, baloreen konpentsazio-, likidazio- eta erregistro-eragiketarako egiten dituen erakundearen identifikazioa.

c) 1. apartatuaren f) letran jasotako salbuespenari dagokionez, likidezia-hornitzailearen eragiketarako egiten dituen erakundearen identifikazioa. Halaber, likidezia-kontratuen iragarkia merkatuan aurkeztu beharko da.

d) 1. apartatuaren h) letran jasotako salbuespenari dagokionez, sozietate-taldearen identifikazioa.

e) 1. apartatuaren i) letran jasotako salbuespenari dagokionez, enpresak berregituratzeko prozesuak ukitutako erakundearen identifikazioa, edo bat-egitean edo zatiketean sartuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeena, eta dagokion agintaritzaren eskudunak eragiketari emandako baimena.

f) 1. apartatuaren j) letran jasotako salbuespenari dagokionez, finantzaketa-eragiketarako edo titulartasuna aldatzea dakarten kolateral-eragiketarako parte hartzen duten erakundearen identifikazioa.

g) 1. apartatuaren k) letran jasotako salbuespenari dagokionez, suntsiarazpen-neurriak hartzeko erabakiaren identifikazioa.

h) 1. apartatuaren l) letran jasotako salbuespenari dagokionez, eragiketarako integratuta dauden berrerosteta-programaren identifikazioa.

Apartatu honetan aipatzen diren erakundeak identifikatzeko, beharrezkoa izango da, hala badagokio, Erakunde Juridikoaren Identifikatzailea jakinaraztea (LEI, ingelesez dituen siglengatik).

Subjektu pasiboak eta eskuratzailerak zerga-administrazioaren eskura izan beharko dituzte jakinarazpena egin dela eta jakinarazpenaren edukia egiaztatzen duten ziurtagiriak.

4. artikulua. *Sortzapena.*

Baloreen kontu edo erregistro batean –dela zaintza-zerbitzua ematen duen erakunde batean, dela baloreen gordailuzain zentral baten sistematan– eskuratzaileraren aldeko baloreen erregistro-idatzoharra egiten den unean sortuko da zerga, baloreak eskuratzeko eragin duen finantza-tresnaren edo eragiketaren likidazioaren ondorioz.

5. artikulua. *Zerga-oinarria.*

1. Zerga-oinarria zergapeko eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa izango da, honako hauek sartu gabe: merkatu-azpiegituren prezioetatik eratorritako transakzio-kostuak, bitartekotza-komisioak eta eragiketari lotutako bestelako gastuak.

Kontraprestazioaren zenbatekoa adierazten ez den kasuan, zerga-oinarria izango da merkatu arautu garrantzitsuenaren itxierari dagokion balioa, eragiketaren aurreko azken negoziazio-egunean dagokion baloreak duen likidezia kontuan hartuta. Ondorio horietarako, likideziari dagokionez merkatu garrantzitsuena Batzordearen 2016ko uztailaren 14ko (EB) 2017/587 Erregelamendu Delegatuaren 4. artikulua arabera zehaztuko da; erregelamendu horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren finantza-tresnen merkatuei buruzko 600/2014 (EB) Erregelamendua osatzen da, negoziazio-zentroei eta inbertsio-zerbitzuetako enpresei aplikatzekoak diren gardentasun-betekizunei buruzko arau teknikoak dagokienez –akzioak, gordailuzainaren ordainagiriak, kotizatutako funtsak, ziurtagiriak eta antzeko beste finantza-tresna batzuk– eta akzio jakin batzuei buruzko eragiketak negoziazio-zentro batean edo barneratzaile sistematikoren baten bidez egiteko betebeharrak dagokienez.

2. Artikulu honen 1. apartatua xedatutakoa gorabehera, zerga-oinarria zehazteko honako arau berezi hauek aplikatuko dira:

a) Zergapeko baloreen eskurapena bonu edo obligazio bihurturri edo trukagarrietatik edo eskurapen hori eragiten duten bestelako balore negoziagarrietatik datorrenean, horien jaulkipen-agirian zehaztutako balioa izango da zerga-oinarria.

b) Eskurapena zergapeko baloreak eskuratzeko edo eskualdatzeko eskubidea ematen duten aukerak edo beste finantza-tresna eratorri batzuk exekutatzetik edo likidatzetik datorrenean, zerga-oinarria kontratuan finkatutako ekitaldi-prezioa izango da.

c) Eskurapena eperako transakzio bat osatzen duen tresna eratorri batetik datorrenean, zerga-oinarria itundutako prezioa izango da, baldin eta tresna eratorri hori merkatu arautu batean negoziatzen ez bada; kasu horretan, muga-egunean zer entrega-preziotan egin behar den eskurapena, hori izango da zerga-oinarria.

d) Eskurapena lege honen 2. artikulua 2. apartatuaren b) letran aipatzen den finantza-kontratu baten likidaziotik datorrenean, artikulu honen 1. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria.

Hirugarrenen kontura jarduten duen subjektu pasiboak apartatu honetan aurreikusitako arau bereziak aplikatu ahal izan dituzan, eskuratzailerak jakinarazi beharko dio aplikazio hori eragiten duten egitatezko kasuak gertatzen direla, bai eta kasu bakoitzean zerga-oinarriaren kuantifikazioa zehazten duten elementuak ere.

3. Baldin eta egun berean zergapeko balore beraren eskurapenak eta eskualdatzeak egiten badira, subjektu pasibo berak aginduta edo exekutututa, eskuratzailerak berari dagokionez, eta, gainera, egun berean likidatzen badira, eskurapen horiei dagokien zerga-oinarria honela kalkulatu da: egun berean eskuratutako balore-kopurutik eskualdatutakoak kendu, eta, diferentzia positibo hori, zatidura honekin biderkatu: aipatutako eskurapenen kontraprestazioen batura zati eskuratutako balore-kopurua. Kalkulu hori egiteko, kanpoan utziko dira lege honen 3. artikuluan aurreikusitako eskurapen salbuespenak, bai eta salbuespen horien aplikazio-esparruan egindako eskualdatzeak ere.

6. artikulua. *Zergadunak, subjektu pasiboak eta erantzuleak.*

1. Zergaduna da lege honen 2. artikulua aipatzen dituen baloreen eskuratzailerak.
2. Zergaren subjektu pasiboa da, kokalekua edozein dela ere:

a) Eskurapena norberaren kontura egiten duen inbertsio-zerbitzuetako enpresa edo kreditu-erakundea.

b) Eskurapena ez bada egiten norberaren kontura diharduen inbertsio-zerbitzuetako enpresa batek edo kreditu-erakunde batek, hauek izango dira subjektu pasiboak, zergadunaren ordezkariak:

1.a Eskurapena negoziazio-zentro batean egiten bada, hura exekutatu duen merkatuko kidea izango da subjektu pasiboa. Hala ere, agindua merkatuko kideari helaraztean finantza-bitartekari batek edo gehiagok esku hartzen dutenean eskuratzaileraren

kontura, agindua zuzenean eskuratzaillearengandik jasotzen duen finantza-bitartekaria izango da subjektu pasiboa.

2.a Eskurapena negoziazio-zentro batetik kanpo exekututzen bada, barneratzaile sistematikoko baten jarduera-eremuan, subjektu pasiboa barneratzaile sistematikoa bera izango da. Hala ere, eskurapenean finantza-bitartekari batek edo gehiagok esku hartzen dutenean eskuratzaillearen kontura, agindua zuzenean eskuratzaillearengandik jasotzen duen finantza-bitartekaria izango da subjektu pasiboa.

3.a Eskurapena negoziazio-zentro batetik eta barneratzaile sistematikoko baten jardueratik kanpo egiten bada, subjektu pasiboa izango da baloreen eskuratzaillearen agindua jasotzen duen finantza-bitartekaria, edo eskuratzailleari entregatzen diona finantza-tresna edo -kontratu baten exekuzioaren edo likidazioaren ondorioz.

4.a Eskurapena negoziazio-zentro batetik kanpo eta aurreko paragrafoetan aipatutako pertsona edo erakundeen esku-hartzerik gabe exekututzen bada, subjektu pasiboa izango da eskuratzaillearen kontura baloreak gordailutzeko zerbitzua ematen duen erakundea.

Ondorio horietarako, eskuratzailleak gordailu-zerbitzua ematen duen erakundeari jakinarazi beharko dizkio zerga ordaintzeko betebeharra zehazten duten inguruabarrak, bai eta haren kuantifikazioa ere.

3. Zerga-zorren erantzule solidarioa izango da baloreen eskuratzaillea, baldin eta subjektu pasiboari informazio okerra edo ez-zehatza jakinarazi badio, eta informazio hori erabakigarria izan bada lege honen 3. artikuluan aurreikusitako salbuespenak behar ez bezala aplikatzeko, edo lege honen 5. artikuluan 2. apartatuan aurreikusitako zerga-oinarria zehazteko arau bereziak behar ez bezala aplikatzearen ondorioz zerga-oinarri txikiagoa ezartzeko.

Zerga-oinarria zehazteko arau bereziak edo salbuespenak behar ez bezala edo oker aplikatzeari dagokion zerga-zorra hartuko du erantzukizunak.

Era berean, artikuluko honen 2. apartatuaren b) letraren 4. zenbakian aipatzen den kasuan, erantzule solidarioa izango da 4. zenbaki horretan aipatzen den jakinarazpena egin ez duen baloreen eskuratzaillea, baita jakinarazpen hori oker edo modu ez-zehatzean egin duena ere.

Jakinarazpenik ez egiteak edo jakinarazpen hori oker edo modu ez-zehatzean egiteak eragindako zerga-zorra hartuko du erantzukizunak.

7. artikulua. *Zerga-tasa.*

Ehuneko 0,2koa izango da zerga-tasa.

8. artikulua. *Aitorpena eta diru-sarrera egiteko betebeharra eta dokumentazio-betebeharrak.*

1. Subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu eta ateratzen den zerga-zorren zenbatekoa sartu beharko dute, erregelamenduz ezartzen den leku, modu eta epeetan eta erregelamenduan bertan zehaztutako edukiarekin.

2. Erregelamenduz ezartzen diren modu eta baldintzetan, subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztuko dute, eta ateratzen den zerga-zorren zenbatekoa sartuko, Espainiako lurraldean kokatuta dagoen balore-gordailuzain zentral baten bitartez.

Ondorio horietarako, subjektu pasiboek balore-gordailuzain zentralari jakinarazi beharko diote autolikidazioan jaso beharreko informazio guztia, eta ateratzen den zerga-zorren zenbatekoa ordaindu beharko diote, zuzenean edo erakunde parte-hartzaileen bitartez, izaera hori ez duten subjektu pasiboaren kasuan.

Balore-gordailuzain zentralak subjektu pasibo bakoitzeko autolikidazio bat aurkeztuko du, subjektu pasiboaren izenean eta kontura, eta likidazio-aldiari dagokion zerga-zorren zenbatekoa sartuko du erregelamendu bidez ezartzen den leku, modu eta epean eta erregelamenduan bertan zehaztutako edukiarekin.

Apartatu honetan aipatutako zerga honen autolikidazioak aurkezteko eta sartzeko prozedura zabaldu ahal izango da Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo Europar Batasunean zerbitzuak emateko aitortuta dauden hirugarren estatuetan kokatutako beste balore-gordailuzain zentral batzuetara, Espainiako lurraldean kokatuta dagoen balore-gordailuzain zentral batekin sinatutako lankidetzakordioen bidez.

3. Likidazio-aldia hilabete naturalarekin bat etorriko da.

Zerga honi dagokion zerga-zorra ezin izango da geroratu edo zatikatu.

4. Artikulu honen 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuz, balore-gordailuzain zentralak autolikidazioak aurkezteak eta zerga-zorra sartzek ez du sortuko zerga-erantzukizun espezifikorik, ez gordailuzain zentralarentzat, ez haren erakunde parte-hartzaileentzat.

5. Espainiako lurraldean kokatutako balore-gordailuzain zentralak, haren erakunde parte-hartzaileek eta zergaren subjektu pasiboek, zergaren kontrola eta kudeaketa errazte aldera, zerga-administrazioaren eskura izan beharko dituzte zergapeko eragiketei buruzko dokumentazioa edo fitxategiak.

Balore-gordailuzain zentralak eta haren erakunde parte-hartzaileek autolikidazioa aurkezteko eta diru-sarrera egiteko betebeharra betetzeko soilik erabili ahal izango dute subjektu pasiboak jakinarazitako informazioa, artikulu honen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera. Informazio hori zerga-administrazioari jakinarazi beharko zaio zerga-araudian aurreikusitako kasuetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa salbu, informazio hori isilpekoa da. Balore-gordailuzain zentralak eta haren erakunde parte-hartzaileek isilpean gorde beharko dute informazio hori.

9. artikulua. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Lege honetan eta hori garatzeko araudian xedatutakoa ez betetzetik eratorritako zerga-arloko arau-hausteak Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean xedatutakoari jarraikiz kalifikatu eta zehatuko dira.

Xedapen iragankor bakarra. *Sozietateak, zeinen akzioak zergapetu egiten baitira zerga aplikatzen den lehenengo urtean.*

1. Lege hau indarrean jartzen den egunetik hurrengo abenduaren 31ra arte, lege honen 2. artikuluan 1. apartatuaren b) letran ageri den betekizuna honako sozietate hauei buruzkoa da: lege hau indarrean jarri baino hilabete lehenago 1.000 milioi eurotik gorako burtsa-kapitalizazioaren balioa duten sozietate espainiarrak.

2. Lege hau indarrean jarri aurretik argitaratuko da sozietate horien zerrenda, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-titulua.*

Estatuak eskumen eskusiboa du Ogasun Publikoaren alorrean, Espainiako Konstituzioaren 149.1.14 artikuluan hala aurreikusita, eta lege hau eskumen horren babesean ematen da.

Azken xedapenetako bigarrena. *Araugintza-garapena eta exekuzioa.*

Gobernuak lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango ditu.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak egin ditzakeen aldaketak.*

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak zergaren zerga-tasa eta salbuespenak aldatu ahal izango ditu.

Azken xedapenetako laugarrena. *Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa egokitzea.*

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hiru hilabeteko epean, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bilduko da, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren egokitzapena erabakitzeko, haren bigarren xedapen gehigarrian agindutakoari jarraituz, eta, bestetik, Nafarroarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren Batzordea bilduko da, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren egokitzapena erabakitzeko, haren 6. artikuluan agindutakoari jarraituz (Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zen; Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa, berriz, abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez).

Azken xedapenetako bosgarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hiru hilabete igarota.

Horrenbestez,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2020ko urriaren 15ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN